# Herritarren Partaidetza: DIPUTATU NAGUSIA

**Departamentua**

Diputatu Nagusiaren Alorra 01

Izena: Herritarren Partaidetza

Kodea: 11

Genero egokitasuna: Handia.

**Programa eta €**

Gastuak

Departamentuko aurrekont. Portzent.

| | 2011 | 2012 | 2013 | 12/11 | 13/12 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastuak | 700.000,00 € * | 1.030.000,00 € | 769.000.00 € | 47,14 % | -25,34% |
| Departamentuko aurrekont. Portzent. | 4,56 % | 6,22 % | 5,17% | 1,66 % | -1,05% |

*Joan den legealdiko Diputatu Nagusiaren hiru kontsulail hauetako hasierako aurrekontua:

Gobernantza eredu berriak, Kudeatuz programa eta Herritarren Partaidetzarako bulegoa.

Diru laguntzak

| Kontzeptu | 2012ko hasierako aurrekontua |
|---|---|
| L - Udalei. | 342.000,00 |
| L - Irabazi asmorik gabeko erakundeei. | 132.000,00 |

Aipagarri diren beste gastu batzuk

| Kontzeptu | 2012ko hasierako aurrekontua |
|---|---|
| Toki entitateen sarearen dinmizazioa | 40.000 |
| Azterlanak eta irizpenak. Aholkularitza | 55.000 |
| Zeharkakotasuna F.A.an Proiektu estrategiko baten inguruko parte hartze prozesua | 20..000 |
| Toki entitatearen sarea. Topaketak | 25.000 |
| Azterlanak eta irizpenak. Mugimenduak elkarrizketa prozesuan | 45.000 |

Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusiaren helburu nagusiak honakoak dira:

| Jarduera | |
|---|---|
| | - Parte-hartzeko demokrazian aurrerapausoa egitea eta Gipuzkoarrek erakundeetako zereginetan eta lurraldeko proiektuetan parte hartu eta erabakietan eragiteko gaitasuna sustatzea.<br>- Herritarrek parte-hartzea naturaltasunez bizitzea eta lurraldea kudeatzeko garaian, herritarrak eta erakundeen arteko harremanetan elementu eta eskubide nagusia izatea.<br>- Lehentasunezko proiektu estrategikoen aurrean GFAk izango duen jarrera herritarrekin batera zehaztea eta herritarrek kontzientzia hartzea erabakian parte hartzea oinarrizko eskubidea dela eta guztion borondatearekin lortu daitekeela.<br>- GFA eta herritarren artean elkarrizketa zuzena izateko sistema bat martxan jartzea, herritarrekiko komunikazio iraunkorraren bidez, zein herritarrek erakundearen lanari buruz egingo duten feedbackaren bidez.<br>- Kabineteak eta GFAk herritarren parte-hartzea eta beste zeharkakoak modu integralean, Departamendu bakoitzetik lantzeko gaitasuna sustatzea eta laneko sisteman integratzen hasten dela bermatzea.<br>- Herritarren parte hartzeko alorrean udalen lana artikulatzea eta sustatzea, udalen arteko sarea sortuz eta elkarrengandik ikasiz.<br>- Herri-erakunde eta mugimenduekin elkarrizketarako guneak zabaltzea eta parte-hartzea sustatzeko gaitasuna indartzea. |

# Euskara Zuzendaritza Nagusia: DIPUTATU NAGUSIA

| | |
|---|---|
| Departamentua | Diputatu Nagusiaren Alorra 01 |
| Programa eta euroak | Izena: Euskararen Normalkuntza<br>Kodea: 20<br>Genero egokitasuna: Ertaina<br>Gastu aurrekontua: 5..308.968 euro |
| Jarduera | • Euskararen erabilera soziala sustatu eta hedatzeko zereginetan ari diren elkarte, enpresa eta udalei bitartekoak ematea da programaren helburu orokorra.<br>• Jasotzaileak dira: enpresak % 30; elkarteak %51,7; udalak % 18; pertsonak % 0,3.<br>• **Diputatuen Kontseiluak onartzeko, aldez aurreko txosten bat egin genuen, genero trataeraren ikuspegiaz; txostena dokumentu honen eranskin gisa bidaltzen dugu.**<br>• Ikus Euskararen erabilera sozialaren esparruan diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2012ko deialdia, Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 29. zk., 2012-02-13. |
| Analisi kuantitatiboa | • Euskara Zuzendaritza Nagusiaren 2013ko aurrekontua (1. kapitulua alde batera utzita) 4.339.336 euro dela kontuan izanda, diru laguntzen programak aurrekontu osoaren % 64,22 egiten du.<br>• **Ez dugu datu zehatzik diruz laguntzen ditugun jardueretan partaide zenbat diren emakumeak eta gizonak.** |
| Analisi kualitatiboa | Ez dugu datu kuantitatibo aski, azterketa kualitatibo bat egiteko. |

Programa eta euroak:

| zk. | Gaia | zenbatekoa € | eskaerak |
|---|---|---|---|
| 1 | Euskarazko aldizkako argitalpenak | 659.894 | 54 |
| 2 | Euskara sustatzeko proiektu eta jarduerak | 381.083 | 74 |
| 3 | Euskarazko ikus-entzunezko proiektuak | 75.000 | 15 |
| 4 | Euskararen erabilera soziala normalizatzeko udal planak | 533.166 | 53 |
| 5 | Itzulpen praktikak egiteko bekak | 5.500 | 5 |
| 6 | Gipuzkoan euskaraz emititzen duten toki telebistak | 257.000 | 5 |
| 7 | Informazio eta komunikazio teknologiak erabiliaz, edukiak euskaraz hedatzeko proiektuak | 349.932 | 139 |
| 8 | Diru laguntza izendunak | 1.103.236 | 16 |
| | Guztira | 3.364.811 | 360 |

## BERDINTASUNA: Diputatu Nagusia

| | |
|---|---|
| **Saila eta €** | **DIPUTATU NAGUSIAREN ATALA 01 2012: 16.545.912,00 EURO<br>2013: 14.849.587 EURO** |
| | **ANALISI OROKORRA** |
| **Programa eta €** | Izena: Berdintasuna<br>Kodea: 30<br>Generoaren garrantzia: Handia<br>Aurrekontua: 1.307.534 |

**1. Taula. Programaren aurrekontuaren zenbatekoa, eta horrek departamentuaren aurrekontuan izan duen portzentajea azken urtetan**

| | 2011 | 2012 | 2013 | 12/11 | 13/12 |
|---|---|---|---|---|---|
| **GASTUA, EUROTAN** | 872.709,00 | 1.679.702,00 | **1.307.534** | **% 192** | **%77,84** |
| **DEPARTAMENTUKO AURREKONTUAREKIKO PORTZENTAJEA** | **% 3,01** | **% 10,15** | **%8,79** | **% 7,14** | **-%1,36** |
| **GFA OSOKO AURREKONTUAREKIKO PORTZENTAJEA** | **% 0,10** | **% 0,24** | **0,18%** | **% 0,14** | **-0,6%** |

GFAren Aurrekontu Propioa 2013an: 736.400.700 euro

Aurrekontu-murrizpena nagusi den testuinguru orokorrean, iragan urtearekin alderatuz, 2012ko Berdintasunerako Planak bere garrantzi erlatiboa nabarmen areagotu du, 2011. urtean, departamentuan % 0,10eko portzentajea izatetik, 2012an % 0,24ko portzentajea edukitzera pasa baita.

**2. Taula. Aurrekontu-programan eta gastu-aurrekontuan ageri diren jarduera nagusiak**

| | 2012 | | 2013 | 13/12 |
|---|---|---|---|---|
| **Berdintasunerako II. Foru Plana osatu, koordinatu eta bere jarraipena egitea** | 150.000 | % 9 | 135.000 | %90,00 |
| **Sare eta jardunbide feministak finkatzen laguntzea** | 403.000 | % 24 | 348.000 | %86,40 |
| **Berdintasunerako herri politikak sustatzea** | 395.000 | % 23,5 | 318.000 | %80,50 |
| **Indarkeria matxistaren aurkako programa** | 135.000 | % 8 | 130.000 | %96,29 |
| **Bizitza-erantzukidetasun eta iraunkortasun programa** | 135.000 | % 8 | 70.000 | %51,85 |

(*) 2012ko fitxa honetan 2013ko Aurrekontu Proiektuko zenbateko orokorrak bakarrik txertatu dira , eta dagokion analisia eguneratu gabe dago.

Berdintasun Zuzendaritzaren jardunbide-ildoak biltzen ditu aurrekontu-programa honek; Zuzendaritza hori berdintasunerako foru politikak bultzatu, koordinatu eta horien jarraipena egiteko arduraduna da, horrelako politikek lehentasun politikoa baitute legealdi honetako foru gobernuan.

**Politika horien guztien helburua da Foru Aldundiaren politika sektorialetan genero-ikuspegiaren integrazioa sustatzea, Gipuzkoa osoan berdintasunetako herri politikak garatzen laguntzea, sare eta jardunbide feministak finkatzen laguntzea, eta indarkeria matxistaren aurkako politikak berdintasunekoekin lotzea; era horretan, ikuspegi feministan oinarrituta, pertsonen bizitzaren zaintzan arreta berezia jartzen duen antolaketa eredu ekonomiko eta sozial berria eraikitzen laguntzeko.**

Gastuaren hein handi bat honetarako erabiliko da: berdintasunerako herri politikak bultzatzeko, sare eta jardunbide feministak finkatzen laguntzeko eta berdintasunerako foru politikak bultzatu, koordinatu eta horien jarraipena egiteko, Berdintasunerako II. Foru Planaren barne. Gainera, bi lan-ildo berri jarri dira abian: lehen lan-ildoaren helburua da emakumeak indarkeria matxistarik gabe bizi daitezela; eta bigarrenarenaren helburua da berdintasunerako politikek antolaketa-eredu ekonomiko eta sozialean bizitza eta zaintza nola sustatu dezaketen hausnartzen laguntzea.

Hartzaileak: Funtsezko lau esparrutako hartzaileei dago zuzenduta:

-. Foru Aldundiko politikari eta teknikariei.
-. Gipuzkoako udalei, bai berdintasunerako arduradun diren kargu politikoen bitartez, bai berdintasunerako udal-tekniken bitartez ere.
-. Gipuzkoako talde feministei eta emakume-taldeei.
- Gipuzkoako herritarrei oro har.

**UDALAK**

| | Kopurua, guztira | Gurekin lan egiten duten udalen kopurua |
|---|---|---|
| Berdintasunerako udal-teknikariak | 23 | 23 |
| Berdintasun-planak dituzten udalerriak | 23<br>Gipuzkoako udalen % 26k du berdintasun-plana; Gipuzkoa osoko populazioaren % 74,53k. | 23 |
| Berdinsarean dauden udalerriak (1) | 16 | 16 |
| Berdinbidesarean dauden udalerriak (2) | 69 | 8 udalerri<br>3 mankomunitate |

*(1) Berdintasunerako eta emakumeekiko indarkeriaren aurkako euskal udalerrien sarea da Berdinsarea, 54 udalerrik osatzen du, EAEko populazioaren % 80 baino gehiago bertan ordezkatuta dagoelarik.*

*(2) Gipuzkoan, 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, berdintasuna sustatzeko ekimenak abian jartzeko aholkularitza eta dinamizazio-zerbitzua da Berdinbidean.*

**TALDE FEMINISTAK ETA EMAKUME TALDEAK**

| Talde feministak eta emakume taldeak | Kopurua, guztira | Gurekin lan egiten duten taldeen kopurua |
|---|---|---|
| | 96 | 80 |

Programa horrek 2012ko jarduera hauen finantzaketa biltzen du:

A) Berdintasunerako II. Foru Planaren osaketa, koordinazioa eta jarraipena:
- II. Plana osatzeko prozesua, horretarako, gurekin lan egiten duten eragile guztiak inplikatuz.
- II. Planaren barne sustapen, aplikazio, koordinazio eta jarraipen-mekanismoak martxan jartzea (aholkularitza, prestakuntza-ekintza programa, informazioa biltzeko erreminta komunak eta abar).

B) Berdintasunerako udal-politiken sustapena:
- Udal esparruko proiektu estrategikoak diruz laguntzeko deialdia.
- Udal mailako lan-sareak sustatzea.
- "Berdinbidean" aholkularitza eta dinamizazio-zerbitzua, udalerri txikiagoei zuzendutakoa.
- Udalerrietan, berdintasunerako teknikarien kontratazioari laguntza ematea.

C) Gipuzkoako talde feministek eta emakume-taldeek garatutako jarduera eta ekimenei laguntza ematea, eta GFAren eta talde horien arteko topaketa eta elkarrizketarako esparruak sortzea:
- Diru-laguntzak emateko deialdia.
- Donostiako Emakumeen Etxeari laguntza ematea, baita Gipuzkoako emakumeen botere-hartzea errazteko prozesuetarako esparru ezberdinen artean lan-sareak sortzea ere.
- Sexu-langileekin zuzenean lan egiten duten erakundeen artean egiten den lan kolektiboa babestea.
- Gipuzkoako Berdintasunerako Foroaren lan-topaketak antolatzea.
- Berdintasunerako Foru Kontseilua abian jartzea.

D) Azkenik, arestian aipatu den moduan, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko foru-politika jarduerak, betiere berdintasun-politikekin eta ikuspegi feministan oinarrituta, bizitza-iraunkortasunaren inguruko eztabaiden azterketa eta jarraipenarekin lotzeko jarduerak aipatzen ditu programa horrek.

Programaren esparruan egiten diren ekintza guztiek, programaren definizioagatik beragatik, Gipuzkoako gizon eta emakume guztien arteko berdintasuna sustatzea dute helburu, era horretan, Berdintasunerako II. Foru Planak bizitza zaintzari lehentasuna ematen dion antolaketa-eredu ekonomiko eta soziala eraikitzen laguntzeko.

| | |
|---|---|
| | **LAN ESPARRU ZEHATZEN ANALISIA** |
| **Berdintasunerako herri politikak sustatzea** | Berdintasun Zuzendaritza Nagusiak, udal-mailan berdintasunerako politikak sustatzeko asmoz, jarduera hauek jarri ditu abian: |

| | |
|---|---|
| Berdintasunerako politiken esparru finko bat duten udalerrien proiektu estrategikoei laguntza ematea (plangintza, langile espezializatuak eta berariazko aurrekontuak dituztenak) | Diru-laguntzak emateko deialdia: 175.000€<br><br>Eskaerak: 28 udaletxek + 2 mankomunitatek |
| Gipuzkoan, udalerri txikietan, berdintasuna sustatzeko ekimenak abian jartzeko aholkularitza eta dinamizazio-zerbitzua ematea (Berdinbidean programa). | Hitzarmena Berdinsarearekin: 85.000€ (*)<br>Berdinbidean sareko udalerrien jarduera zehatzei laguntza ematea: 33.000 €<br><br>Aholkularitza eta dinamizazioa jasotzen ari diren udalerrien kopurua:<br>- 10 udalerri<br>- 3 mankomunitate<br><br>Abian dauden ekimenen kopurua: 9<br><br>*(*) Hitzarmen horretatik, gutxi gorabehera 50.000€ "Berdinbidean" ekimenerako erabiliko dira.* |
| Berdinsarea (Berdintasunareko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako sarea) ekimenarekin elkarlanean, Gipuzkoako Berdintasunerako Teknika Sarea martxan jarri eta dinamitzatzea, era horretan, Gipuzkoa mailan egiten den lana indartzeko. | Hitzarmena Berdinsarearekin: 85.000€ (*)<br><br>Egindako topaketa-kopurua: 7<br>Lanerako gaiak:<br>- Zuzendaritzaren eta lan-ildoen aurkezpena.<br>- Krisiaren azterketa, ikuspegi feministatik begiratuta.<br>- Zaintza duin eta unibertsalak.<br>- Ongi bizitzeko ekonomia.<br>- Ongi bizitzeko ingurunea.<br>- Indarkeria matxistarik gabeko bizitza.<br>- Sare eta jardunbide feministak.<br>- GObernu ona, ikuspegi feministatik begiratuta.<br><br>Teknikari partaideen kopurua: 20 topaketa bakoitzeko<br><br>*(*) Hitzarmen horretatik, gutxi gorabehera 35.000€ Sarerako erabiliko dira* |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Gipuzkoan, berdintasuneko udal-karguen arteko hausnarketa, koordinazio eta truke-esparruak sortzea | Egindako topaketa-kopurua: 2<br>Lanerako gaiak:<br>- Zuzendaritzaren eta lan-ildoen aurkezpena.<br>- Diru-laguntzak emateko deialdia.<br>- Udal-esparruan berdintasunean espezializatutako teknikariak kontratatzen laguntzeko irizpideak proposatzea.<br>Parte hartu duten udal-karduen kopurua: 22 topaketa bakoitzeko. |
| | | Udalek berdintasunerako teknikarien kontratatzeko laguntza ematea. | Azterlan juridiko bat egiten ari da kontratazioa eta hori sustatzeko aukerak aztertzeko, betiere azken lan-erreformen esparruan.<br>Emaitzaren arabera, lan-ildo horretan interesa duten udalekin lankidetza-hitzarmenak sinatzeko aukera egon daiteke. |
| | "Azpiprograma" horren helburua da udal-esparruan berdintasunerako politikak sustatzea. Horregatik, herri administrazioan eragiten da zuzenean, udalak beraiek izanik herritarrentzako programa zehatzak abian jarri behar dituztenak.<br>Ildo horretan, gure ustez, udal-esparruan lanerako sare bat osatzen hasi da, eta sare horrek ezaugarri hauek ditu:<br>-. Arduradun politikoak eta teknikariak hartzen ditu barne.<br>-. Udalerri handiekin eta txikiekin egiten du lan, berdintasunaren esparruan, orain arte, bereizita baitzeuden.<br>-. Aldi berean, lurraldez gaindiko bestelako sareekin ere koordinatzeko da, lan komuna ere indartuz. | | |

<table>
<tr>
<td>Sare eta jardunbide feministak finkatzen laguntzea</td>
<td>
Berdintasun Zuzendaritza Nagusitik, Gipuzkoan sare eta jardunbide feministak finkatzeko helburupean, ekimen hauek jarri dira abian:
<table>
<tr>
<td>Gipuzkoako elkarte feministek eta emakume-taldeek abian jarritako proiektuei laguntza ematea</td>
<td>Deialdia eta diru-laguntzak: 200.000€<br>Eskaerak: 48 elkartek</td>
</tr>
<tr>
<td>Gipuzkoako sare eta jardunbide feministak sustatzea</td>
<td>- Gipuzkoako kolektiboen ordezkariekin topaketa feminista bat antolatzea.<br>- Emakume parte-hartzaileak: 17<br>- Ordezkatutako elkarteak: 7<br>Aurrekontua: 5.000 €<br><br>- Gipuzkoako Berdintasunerako Foroaren topaketa:<br>- Emakume parte-hartzaileak: 78<br>- Ordezkatutako elkarteak: 32<br>Presupuesto: 10.000 €<br><br>- Hitzarmena Donostiako Emakumeen Etxea elkartearekin.<br>Aurrekontua: 28.000€<br><br>- Prostituzioan jarduten duen emakumeekin lan egiten duten elkarteen topaketa.<br>Aurrekontua: 8.000€</td>
</tr>
<tr>
<td>GFAren eta Gipuzkoako mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen arteko topaketa eta elkarrizketarako esparruak sortu eta horiei laguntza ematea</td>
<td>- Mugimendu feministarekin hartu-emanak abian jartzea, Berdintasunerako Foru Kontseilua modu bateratuan diseinatzeko.<br>- Berdintasunerako Foroaren esparruan, emakumeen elkarte-mugimenduko topaketei laguntza ematea.</td>
</tr>
</table>
"Azpiprograma" horretako ekintzen helburua zehazki emakumeei zuzenduta dago, era horretan, ikuspegi feminista eta botere-emailea oinarritzat hartuta, emakume eta feministen elkartegintza-jardunbideak sustatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta emakume zein feminista-mugimenduen arteko topaketa eta elkarrizketa-guneak sortzeko.<br>
Ildo horretan, lan-esparru horretako funtsezko balioa da laneko eta trukerako esparruei buruzko azterketa, hausnarketa eta eztabaida-prozesuari ekin izana, baita emakume zein feminista-mugimenduekin elkarrizketa-mekanismoei buruzkoa ere; era horretan, berdintasunerako politika publikoei buruzko jarraipena egin eta erabakiak hartzeko orduan, partaidetza-eredua sustatu ahal izateko.
</td>
</tr>
</table>

| | |
|---|---|
| **Bizitza-iraunkortasuna** | Lan-esparru honetan, ikuspegi feministan oinarrituta, bizitza-iraunkortasunari buruzko eztabaiden azterketa eta jarraipenari lotuta, eztabaida soziala sustatzeko lehen pausoak eman dira.<br>Lan-esparru zaila da, bizitza-iraunkortasuna Berdintasunerako II. Foru Planeko estrategia-ildo ezberdinei baitago lotuta:<br>-. Ongi bizitzeko ekonomiari.<br>-. Zaintza duin eta unibertsalei.<br>-. Ongi bizitzeko inguruneari. |

| | |
|---|---|
| Eztabaidarako esparru-dokumentuak osatzea | - "Bizitza-iraunkortasunari" buruzko esparru-dokumentua:<br>- Gai horri buruzko eztabaida feministen azterketa<br>- Erreferentzia-bibliografia<br>- Erreferentzia interesgarriak (azterlanak, adituak, esperientzia zehatzak...)<br><br>- Zaintza duin eta unibertsalei buruzko esparru-dokumentua:<br>- Gai horri buruzko eztabaida feministen azterketa<br>- Erreferentzia-bibliografia<br>- Erreferentzia interesgarriak (azterlanak, adituak, esperientzia zehatzak...)<br><br>Aurrekontua: 15.000€ |
| Lan-mintegiak berdintasuneko teknikariekin | -"Bizitza-iraunkortasunari" buruzko mintegia:<br>Partaideak: 20 teknikari<br><br>-"Zaintza duin eta unibertsalei" buruzko mintegia.<br>Partaideak: 20 teknikari<br><br>Aurrekontua: 4.000€ |

Orain are abian jarritako ekintzei esker, gai horri buruzko eztabaidari ekin zaio. Halaber, horrek agerian utzi du Gipuzkoako Foru Aldundiak zailtasunak dituela bizitza-iraunkortasunaren gaia modu globalean jorratzeko, gai zabala baita, eta ukitzen dituen jarduera-esparru sektore batzuetan, Foru Aldundiak ez baitu eskumenik: esaterako, hezkuntzan, lanean, lan-ikuskaritzan, osasunean, gizarte segurantzan, hirigintza-plangintzan eta abar.

Ildo horretan, foru-jarduketa esparrua mugatu behar da, hori oinarritzat hartuta, politika publikoen muinean zaintza eta bizi-iraunkortasuna ezartzeko jarduerak diseina daitezen.

| | |
|---|---|
| **Indarkeria matxistarik gabeko bizitza** | Lan-esparru horretan, bi helburu estrategiko nagusi proposatzen dira.<br>-. Alde batetik, emakumeen kontrako indarkeria matxistari aurre egiteko foru-politikak berdintasunerako politikekin lotzea. Horrek esan nahi du, politika horiek guztiak berrikusi egin behar direla, zuzeneko indarkeriari aurre egiten dioten emakumeei boterea hartzen laguntzeko.<br>-. Bestetik, indarkeriaren kontzeptua zabaltzea, ohiko zuzeneko indarkeria-ereduen haraindian. Ildo horretan, izaera kultural eta sinbolikoko zeharkako indarkeriari aurre egiteko jarduketak ere abian jarri nahi dira. |

| | |
|---|---|
| Zuzeneko indarkeriaren aurkako foru politikak aztertzea | - Indarkeriari ikuspegi botere-emailearekin aurre egiten dioten emakumeentzako baliabideak aztertu eta ebaluatzea, eta horiek hobetzeko proposamenak egitea.<br>- Udalerriek indarkeria matxistari aurre egiteko egiten duten lana aztertzea, sareko lan-eredu deszentralizatuaren bitartez, Gipuzkoa osoan egiten diren ekimenei koherentzia emateko.<br>Aurrekontua: 46.0000€ |
| Aisialdia eta ospakizun-eredu inklusiboak sustatzen dituzten prozesuei laguntza ematea | - Hitzarmena Irungo alarde mistoarekin: 30.000€<br>- Gastronomia elkarteetan zabaltze inklusiboa egiteko prozesuei laguntza ematea.<br>- Berdintasuna kanpaina: 9.000€ |
| Gazteekin indarkeria matxistari aurrea hartzeko lan egitea | - "Beldur Barik" erakunde arteko programa: 19.000€<br>-. Udal-esparruan haur eta gazteekin lan egiten duten eragileen prestakuntza-programa: 5.000 € |

Abian jarritako jarduerei esker, bi esparrutan aurrerapausoak ematen ari gara:

- Alde batetik, indarkeriaren aurkako borrokan, foru politikak antolatu ditugu, berdintasunerako politiken esparruan sustatzen diren proposamenen eta Gizarte Politikako Departamentuan egiten den lanaren arteko koordinazio eta koherentzia sustatuz.
- Bestetik, emakumeen aurkako indarkeria matxista modu zabalagoan, ikuspegi global eta integratzailearen arabera, ulertzeko sentsibilizazio sozialean aurrera egin dugu.

## Migrazio eta Aniztasuna: DIPUTATU NAGUSIA

| | | |
|---|---|---|
| **Departamentua** | Diputatu Nagusiaren Alorra 01 | |
| | Izena: | Migrazio eta Aniztasuna |
| | Kodea | 40 |
| | Genero egokitasuna: | Handia. |
| **Programa eta €** | | |

| | 2011 | 2012 | 2013 | 12/11 | 13/12 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastuak | - | 1.143.956,00 € | 892.568 | - | %21,97 |
| Departamentuko aurrekont. Portzent. | - | 9,91 % | %6,05 | - | %3,86 |

Pertsonaleko gastuak (1. Kap): 76.758,00 €.

Diru laguntzak

| Kontzeptu | 2013ko hasierako aurrekontua |
|---|---|
| L - Udalei. Aniztasuna sustatzeko programa. | 100.000,00 € |
| L - Irabazi asmorik gabeko erakundeei. Aniztasuna sustatzeko programa. | 70.000,00 € |

Aipagarri diren beste gastu batzuk

| Kontzeptu | 2013ko hasierako aurrekontua |
|---|---|
| Azterlanak eta irizpenak. Aniztasunaren kudeaketarako jakintza arlo. | 143.000,00 €. |
| Azterlanak eta irizpenak. Aniztasuna eta Elkarbizitza egitasmoa. | 120.000,00 €. |
| Azterlanak eta irizpenak. Ezagutzatik aitortzara egitasmoa. | 76.810,00 €. |
| Zeharkakotasunarako Dinamizazio batzordea. | 47.000,00 €. * |
| kintza plana: Elkargune Partehartzailea. | 58.000,00 €. * |
| rakundeen arteko egitasmoa. | 115.000,00 €. |
| Prestakuntza jarduerak eta ikastaroak. | 33.000,00 €. |

| | |
|---|---|
| **Jarduera** | **Migrazio eta Aniztasuna Zuzendaritza Nagusiaren helburu nagusiak honakoak dira:**<br>- kudeatzea ikuspegi propio, nazional, zeharkako eta integral batetik, Gipuzkoako herritar guztiak barne hartzen dituena, Euskal Herria erreferentea bilakatuz eta bere errealitatea, politikoki eta kulturalki gutxiagotua duen nazio izaera, abiapuntu bihurtuz.<br>- Asimilazio ereduen aurrean, elkarren aitortzan oinarrituta politikak abiatzea, gure herritar guztien aukera berdintasuna bermatzeko bitartekoak jarriz, jatorri aniztasuna gipuzkoar bakar batentzat ere oztopo bilaka ez dadin bere eskubide guztiak bermaturik izateko.<br>- Demokrazia parte-hartzailea sustatuz, migrazioaren eta aniztasunaren gaiei dagokienez erabaki propioak hartu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak sortzea.<br><br>**Aurekontuko programa honen kargura zenbait ekintza agingo dira. Haien artean aipatu ditzakegu:**<br>- Migrazio eta Aniztasun Zuzendaritzaren Dinamizazio Taldea sortzea. Arlo eta esparru ezberdinetan lana egiten duten pertsona adituen eta erreferentzialek osatutako lan taldea sortzea.<br>- “Jatorri anitz, herri bat” izeneko dinamika parte-hartzaile bat sortzea non parte hartzeko aukera izango baitute jatorri anitzeko herri eta herrialdeko biztanle, talde eta jendarte eragile orok, zein Aldundiak berak ere, beste agente bat gehiago gisa.<br>- Erakundeen arteko lankidetza eta koordinazio sarea. Erakundeen arteko sare bat eraikiko da, lankidetza, laguntza, babesa eta aholkularitza elkarri emateko, udalen eta bestelako erakundeen artean, Foru Aldundia barne.<br>- Jatorriaren araberako Gipuzkoako benetako argazkia osatu, aztertu eta ezagutzera ematea eta Euskal Herriko gainerako herrialdeenarekin alderatzea eta osatzea.<br>- Maila akademikoan arloari dagokionez, jakintza eraikitzeko estrategia bat diseinatu eta martxan jarri.<br>- Gipuzkoa eta EH, euskara eta euskal kultura beste herrialde eta kultura batzuetatik datozenei eta, aldi berean Gipuzkoako jendarteari beste jatorria duten gipuzkoarron errealitatea, kultura eta hizkuntzak ezagutzera emateko guneak, ekintzak eta euskarriak sortzea.<br>- Sentsibilizazio dinamikak, jardunaldiak eta kanpainak.<br>- Erakusketak, liburuxkak, oinarrizko hiztegiak eta bestelako ikusentzunezko euskarriak sortzea |

| | |
|---|---|
| | - Jarrera xenofobo eta arrazistak prebenitzeko eta salatzeko dinamikak.<br><br>- GFAren gainerako departamendu eta zuzendaritzekin zein Gipuzkoako udalekin gipuzkoarren jatorri aniztasuna zeharka elementu gisa kontenplatzeko planak eta elkar-kudeaketan oinarritutako ekintza zehatzak. |
| **Analisis Kuantitatiboa** | - |
| **Analisis kualitatiboa** | - |

| Komunikazioa: Diputatu nagusia | | |
|---|---|---|
| **Departamentua** | Diputatu Nagusiaren Alorra 01 | |
| | Izena: | Komunikazioa |
| | Kodea: | 50 |
| | Genero egokitasuna: | Handia. |

**Programa eta €**

| | 2011 | 2012 | 2013 | 12/11 | 13/12 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastuak | 3.273.019,00 € | 1.526.784,00 € | 2.208.175,00 € | - 53,35 % | 44,63% |
| Departamentuko aurrekont. Portzent. | 21,33 % | 9,28 % | 14,86% | - 12,05 % | 5,58% |

Pertsonaleko gastuak (1. Kap): 125.494,00 €.

Aipagarri diren beste gastu batzuk

| Kontzeptu | 2012ko hasierako aurrekontua |
|---|---|
| Azterlanak eta irizpenak. | 149.036,00 €. |
| Komunikazio proiektuak. | 661.402,00 €. |
| Publizitatea eta propaganda | 1.037.610,00 € |
| Dokumentazio eta informazio zerbitzuak. | 150.000,00 €. |

**Jarduera**

**Komunikazio Zuzendaritza Nagusiaren helburu nagusia da Gipuzkoako Foru Aldundiko komunikazio politika lantzea eta gauzatzea.**

**Aurrekontuko programa honen kargura zenbait ekintza egingo dira. Haien artean aipatu ditzakegu:**

- Gizarte hedabideei Foru Aldundiaren eta diputatu nagusiaren jardueraren berri ematea.
- Foru gobernuaren programaren jarduera nagusienen garapenaren komunikazioari ekitea.
- Foru gobernuaren programako jarduera nagusiak komunikatzeko egin behar diren kanpainak departamentuekin batera planteatzea.

| | |
|---|---|
| | - Kanpoko komunikazioan, Foru Aldundiko departamentuei laguntzea bere komunikazio ekintzak bideratzeko.<br><br>- Lurraldeko atari instituzionala del gipuzkoa.net-eko edukiak koordinatzea eta arduratzea. Baita Diputatu nagusiaren eta herritarren partaidetzaren web guneak sortzea ere. |
| **Analisis Kuantitatiboa** | - |
| **Analisis kualitatiboa** | - |

| KODEA | KONTZEPTUA | ESLEIPENDUN | ZENBATEKO |
|---|---|---|---|
| **2012002 NE500** | Zerbitzuak: Gipuzkoako Foru Aldundiak Zero Zabor irizpidea komunikazio estrategian txertatzeko aholkularitza zerbitzua. | **MunduMira** | 70.800,00 € |
| **2012006EN500** | Servicios: Buzoneo en municipios de Gipuzkoa. | **Gupost SAU Publicidad Directa** | 11.420,43 € |
| **2012007EN500** | Zerbitzuak: Gipuzkoako hondakinen kudeaketa: ikerketa kualitatiboa 2012. | **Aztiker SL** | 14.101,00 € |
| **2012008EN500** | Zerbitzuak: Entzuketa aktiboa. | **Gupost SAU Publicidad Directa** | 5.782,00 € |
| **2012010EN500** | Zerbitzuak: Herritarren iritziak, hautemateak eta balorazioak jasotzeko inkesta-lana. | **Aztiker SL** | 20.616,00 € |
| **2012011EN500** | Zerbitzuak: EUSKARAZ BIZI EUSKARA kanpainaren lanetarako "EUSKARAZ BIZI EUSKARA" iragarkiaren diseinua | **Maramara taldea SL** | 674,96 € |
| **2012012EN500** | Zerbitzuak: Gipuzkoako udalerrietako postontzietan errepideen finantzazioari buruzko diptikoa banatzea. | **Gupost SAU Publicidad Directa** | 11.067,02 € |
| **2012035 NE500** | Gipuzkoako gizarteari elkarbizitzarako, berdintasunerako eta kulturarako balio positiboak transmititze aldera ipuin bilduma argitaratu eta banatzeko zerbitzuak. | **Euskal Prensa, SL** | 70.000,00 € |
| **2012040EN500** | Contrato administrativo Especial: Kilometroak Kultur Elkarteak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean, urtero Gipuzkoan egin ohi den Ikastolen aldeko Kilometroak jaian zero zabor zabor programa. | **Kilometroak Kultur Elkartea** | 7.260,00 € |

| Giza Eskubideak eta Oroimen Historikoa: DIPUTATU NAGUSIA | |
|---|---|
| **Departamentua** | Diputatu Nagusiaren Alorra 01 |
| | Izena: Giza Eskubideak eta Oroimen Historikoa<br>Kodigoa: 60<br>Genero egokitasuna: Handia. |
| **Programa eta €** | (see below) |

| | 2011 | 2012 | 2013 | 12/11 | 13/12 |
|---|---|---|---|---|---|
| Gastuak | 311.941,00 €* | 878.956,00 € | 688.458,00 € | 181,77 % | -21,66% |
| Departamentuko aurrekont. Portzent. | 0,77 % * | 5,31 % | 4,63% | 4,54 % | -0,68% |

*Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentua.

Pertsonaleko gastuak (1. Kap) 76.758,00 €.

Diru laguntzak

| Kontzeptu | 2013ko hasierako aurrekontua |
|---|---|
| N - Euskal Herriko Unibertsitatea. | 12.000,00 €. |
| .L- Udalei. Giza eskubideak | 85.000,00 €. |
| L- Udalei. Oroimen historikoa | 85.000,00 €. |
| L - Irabazi asmorik gabeko erakundeei. Giza eskubideak. | 87.500,00 €. |
| L - Irabazi asmorik gabeko erakundeei. Oroimen historikoa. | 87.500,00 €. |
| N - Deustoko Unibertsitatea. | 30.000,00 €. |
| N - Baketik fundazioa. | 30.000,00 €. |

<table>
<tr><td></td><td>Aipagarri diren beste gastu batzuk</td><td>

| Kontzeptu | 2013ko hasierako aurrekontua |
|---|---|
| Giza eskubide planaren inplementazioa | 20.000,00 €. |
| Giza eskubideak planaren ekintzak | 38.000,00 €. |
| Oroimen historikoa planaren ekintzak | 49.700,00 €. |
| Planak garatzeko udalen koordinazioa | 20.000,00 €. |

</td></tr>
<tr><td>Jarduera</td><td colspan="2">

Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusiak, gizarte eragile eta erakundeekin batera, normalizazio politikoa, berradiskidetzea eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako bakea lortzen bidelagun izan nahi du.

Giza eskubideak ezagutzea, haien alde lan egitea, sustatzea eta gauzatzea du helburu, gizartearen eta administrazioaren sentsibilizazioa eta trebakuntza bitartez.

Oroimen Historikoari, dagokionez, egia ezagutu araztea eta beren eskubideen urraketa pairatu zuten pertsonen aitortza eta justizia bultzatzea.

Orobat, Gipuzkoako Foru Aldundiak garatzen dituen politika publikoak koordinatzen ditu Aldundi barruan.

Aurekontuko programa honen kargura Gizartea eta Administrazioari zuzendutako sentsibilizazio neurriak hartuko dira. Haien artean aipatu ditzakegu:

- Udalei, mankomunitateei eta diru irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei diru laguntzak ematea, bai giza eskubideen alorrean proiektuak gauzatzeko, bai oroimen historikoari buruzko proiektuak egiteko.
- Nazioarteko erakundeetan ikastaro ofizialak egiteko bekak.
- Udalei zuzendutako jardunaldiak, adituak eta elkarteek parte hartuta.
- EHUrekin hitzarmen baten bitartez, giza eskubideei buruzko ikasleentzako mintegiak.
- Asmoz Fundazioarekin, bekak, giza eskubideen ikastaro on line bat egiteko.
- Sentsibilizazio jardueren artean, beste ekintza batzuk.

</td></tr>
<tr><td>Analisis Kuantitatiboa</td><td colspan="2"></td></tr>
</table>